**Erantzunak: 2.-** Urpeko betaurrekoak daude sobran.




A 6+6 | 5+1

B 9-3 | 10-2

C 7+1 | 5-3

D 7+7 | 8+3

E 6+8 | 6-1



# 3.

**Dominoa.** Lorea eta Miren domino partida bat jolasten ari dira etxeko egongelan.

**Zer ordenatan jarri dituzte piezak?**

# AZOKA



## '1880tik irekia'

«1880tik irekia» narrazio grafiko bat da, hitzik gabeko historia bat, azken 140 urteen joana erakusten duena. Mendebaldeko hiri batean giroturik, erdialdeko kale bateko eraikin batean, denboraren ibilbidea ikus daiteke inguruari erreparatuta: herritarren janzkera, garraiobideak edo aurrerapen teknologikoak.

**Pietro Gottuso**

Argitaletxea: **Pamiela**



## 'Bizitza'

Bizitza txiki-txiki hasten da, baina berehala hazten da, eta, batzuetan erraza ez bada ere, beti eskaintzen dizkigu gauza miresgarriak eta bide berriak.

**Cynthia Rylant eta Brendan Wenzel**

Argitaletxea: **Ibaizabal**



## 'Bai ondo ilunpean'

Klimaren lagunak kanpatzera joan dira, eta izarrak ikusi nahi dituzte. Baina azeria nekatuta dago. Ez du ondo lo egin. Hontzak dioenez, inguruko argi guztiengatik gertatu zaio hori. Argia ona da, energia ematen baitigu, baina iluntasuna ere behar dugu.

**Judith Koppens eta Nynke Mare Talsma**

Argitaletxea: **Ttarttalo**



## 'Isadora Moon eskolara doa'

Isadoraren ama maitagarri bat da, eta aita, banpiro bat, eta berak bietatik gorde du zerbait. Ikaragarri gustatzen zaizkio gaua, saguzarrak eta bere tutu beltza; baina baita eguzkiaren argia, hagaxka magikoak eta Pinky, bere untxi arrosa.

**Harriet Muncaster**

Argitaletxea: **Mezulari**